



1. Haur Literaturaren Txokoa

Aurreko buletinean bide berri bat hasi genuen eta liburu batzuen irakurketa berezia proposatu genuen. Harrera ona izan du txoko honek, irakasle asko animatu da liburu hauen ezaugarri literarioak aurrean, beren ikasleen emozioak jorratzera. Oraingo buletin honetan ere hiru proposamen eskaintzen dizkizuegu:

1. [Txizagura](#). (Émile Jadoul. Ttartalo, 2012)
2. [Frederick](#). (Leo Leoni. Kalandraka, 2004)
3. [Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo](#). (Holzwarth-Erlbruch. Kalandraka, 1989)

2. Egitasmoak martxan

Aurten Erreterian eta Abusu- La Peñan, beste herri guztietan bezalaxe, hasi berri gara ohiko formazio ikastaroak bideratzen, galdekizunak zabaltzen... Gaur [Irakurketa Klubez](#) ariko gara. Horietan Lur Korta eta Mari Garcia dinamizatzaileen eskutik gurasoek beren haurrekin batera hartzen dute parte, liburuak ezagutu eta zer kantatu, zer kontatu eta hori guztia praktikatzeko zer egin ikasiz. Bukatzeko, ikuskizun txiki bat eskaintzen zaie. Hor duzue [lehen atala](#) eta oraingoz lotuta dagoen [egutegia](#).

3. Hausnarketa gunea

Gurasoen Bukaerako Emaitzei dagokienez, esanguratsuenak aipatu nahi ditugu hemen. Hasierakoekin alderatuz, hobekuntza handiena izan duten arloak honakoak dira: orain %58 gehiago dira haur kantak haurrari kantatzen dizkioten gurasoak; %70ak dio, zentzu batean edo bestean, kontakizunetan haurrarekin dituen bizipenak hobetu egin direla eta %42 gehiago dira liburutegietara euren haurrekin hurbiltzen diren gurasoak. [Hemen](#) ikus dezakezue emaitzekin osatutako txosten laburra.

4. Ongi pasatzeko!

Dagoeneko, lanean ari garen herrietan banatu dugu [bibliografia sailkatua](#). Aurten nabarmendu ditugun liburuak daude bertan, zaharrak nahiz berriak. Adinen eta gaien arabera egin dugu sailkapena. Multzo bakoitzaren ondoan iruzkin txiki bat ere jarri dugu, liburua nola erabil daitekeen ikusteko. Irudi-liburu asko ere sartu ditugu, gaztelerazko tituluaren atzean, ipuin grafikoak azaltzen dituztenak. Horietako batzuekin gozatzeko aukera eskaintzen dizuegu ondorengo esteketan:

1. ["En el cielo" y "En el jardín" \(Océano Travesía\)](#)
2. [Libros del zorro rojo](#)
3. [El bosque](#)